

Abenduaren 16an
ABENDUALDIKO III. IGANDEA (C)

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Jaunaren gertutasunak dakarren poza oroitarazten digu Abendualdiko hirugarren igandeak. Poz horrek ordea, azalekoa ez, baizik eta barru-barruraino iritsi eta aldatzen gaituena behar du izan: Kristok dakarren salbamina itxarotera garamatzana.

[Piztera goazen Abendualdiko hirugarren argia izan dadila Jaunak bere etorrerarekin gure bizitzara dakarren argiaren adierazgarri.]

Abendualdiko argia piztea (*Kantua, liburuxka honetan, 5-6 orrialdeetan*)

Damu-otoitza (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Senideok: eska dezagun gure bekatuen barkamena, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, Jaunaren Espirituaz gantzutua izan zinena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Jaunaren grazi urtea hots egitera gure artera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, munduko bekatua kentzen duzun Jainkoaren Bildotsa: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Otoitza

**Jainko Jauna, ikusten duzu zure herria,
zure Semearen jaioteguna zintzoki itxaroten;
iguzu, arren,
Eguberritako salbamen miragarriaren zorionera iritsi gaitezela
eta pozik handienaz ospa dezagula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoa gizakien ondo-ondoan ari da, bere beharrean diren guztiei kontsolamendua eskainiz. Joan Bataiatzaileak prestatzen digu Jaunaren bidea: bihotz-berritzeko egiten digun deiak, bidea jar gaitzala, zentzuz eta pozik bizitzeko gogoz.

Lehenengo irakurgaia (So 3, 14-18a)

Sofonias Profetaren liburutik

Egin poz irrintzi, Siongo alaba! Egin oihu alai, Israel! Poztu zaitetz bihotz-bihotzez, Jerusalemgo alaba! Urratu du Jaunak zure kontrako erabakia, atzerarazi ditu zure etsaiak. Jauna izango da Israelgo errege zure erdian; ez duzu gehiago beldurrik izango. Egun hartan, honela esango zaio Jerusalemi: «Ez izan beldurrik, Sion! Ez bitez erori zure eskuak! Jauna, zure Jaungoikoa, zure erdian dago. gudari salbatzaile! Pozaren pozez alaitzen da zuregatik; maite zaitu eta pozez jauzika dabil, jaiegunez bezala».

Erantzun-salmoa (Is 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6)

Jau - nak he - rri - a dau - ka be - re - kin, be -
 dein - ka - tzen du ba - ke - a - re - kin.

Hara, Jainkoa da nire salbatzaile;
 badut uste on eta ez naiz beldur.
 Jauna baita nire indar eta kemen,
 Bera izan da nire salbamen. R/.

Aterako dituzue urak pozetan, ' salbamenaren iturrietan.
 «Eskerrak Jaunari, Haren izena oihu egizue.
 Ezagutarazi herrietan Haren eginen bikainak,
 iragar ezazue Haren izen garaia. R/.

Kanta Jaunari, egin baititu aipatzekoak,
 ezagutu bezate hau lurbira osoan.
 Sionen bizi zaretenok, goretsazue irrintzika,
 handi baitago Israelgo Santua zuen erdian». R/.

Bigarren irakurgaia (*Flp 4, 4-7*)

San Paulo Apostoluak Filipotarrei

Senideok: Zaudete beti pozik Jaunarengan; berriro diotsuet, zaudete pozik. Ezaguna izan bedi gizaki guztientzat zuen bihotz zabala. Hurbil da Jauna. Ez eduki ezeren kezkarik; baizik eta beti eta beti zuen esker onezko otoitz eta eskarietan, agertu zeuen eskabideak Jaungoikoari.

Aleluia (Lk 4, 18)

Jaunaren Espiritua niregan dago,
behartsuei berri ona ematera bidali nau.

Ebanjelioa (Lk 3, 10-18)**Homiliarako argibideak**

Eta guk, zer egin behar dugu?

Nola prestatu aurten Gabonak? Beti bezala, saltokiek aurrea hartu diete kristau proposamenei. Gauzarik okerrenak kopiatu dizkiegu estatubatuarrei, kontsumismoa, besteak beste, eta “ostiral beltza” eskaintzen diogu, zoritxarrari barre eginda. Ekonomiari dagokionean, gauzak asko hobetu omen dira... Berri ona litzateke; batez ere, errealitatea balitz, baina pertsona asko eta asko gaizki pasatzen ari dira, oraindik.

Kristauok, baina, Jainkoaren Hitzak gaur dakarkigun beste Berri On batean bilatu behar dugu poza: Hurbil da Jauna. **Mesiasen poza** dakarkigu profetak, bere herriaren erdian baitago Jauna, Jerusalemen (So 3,14-18). Arrazoi hori bera darabil Paulok ere (Flp 4,4-7). Poz hori Jainkoaren dohaina da beti, ezin dugu artifizialki sortu, Gabonetako zalaparta eta iskanbilarekin nahasita. Kezkarik ezak dakar batez ere poz hori. Ez kezkarik ez dagoelako, baizik eta ez digutelako Gabonetako bakea eta poza galarazten. Otoitzean adierazten dizkio batek kezka Jaunari, konfiantzaz eta eskerrak emanez.

Gabonek **Jainkoaren hurbiltasuna** biziartzten digute. Giza Jainkoa da Jainkoa, eta ez dago gugandik urrun; gure ondoan dago, gure historia gurekin partekatzen eta sufritzen. Eta guk, zer egin behar dugu? Jainkoa hurbil edukitzeak gizakiengana hurbilartzten gaitu, sufritzen ari direnengana batez ere, haiei Berri Onen bat eramaten saiatzeko.

Kalkulu ekonomiko hutsak egin beharrean, zenbat gastatu ahal dudun, alegia, ona da, agian, perspektiba ebanjelikoago batean kokatzea, gure ingurura begiratzea. Besteei zer falta zaien ikusita, guk duguna beraiekin partekatzea da kristauon aukera bakarra (Lk 3,10-18). Jainkoak ez ditu eskatzen kultuarekin eta otoitzarekin lotutako gauzak, **giza harremanekin** lotutako gauzak eskatzen ditu. Hortxe dago jokoan Jainkoaren Erregetzaren etorkizuna, aurrena Joan Bataiatzaileak eta ondoren Jesusek iragarritakoa.

Adibide hutsak baino ez dira, eta bere egoera berezira egokitu beharko ditu bakoitzak. Baina adierazgarriak dira, ondasun materialekin baitute batez ere zerikusia. Jendeari, oro har, ondasunak, elikagaiak zein jantziak, partekatzeko jarrera eskatzen dio Bataiatzaileak. Justizia egitea eskatzen zaie batez ere herritar eta militarrei. **Justizia, elkartasuna edo karitatea** dira kristautasunaren oinarrizko elementuak.

Geure bizitzan **erabateko aukera** egitean datza, besteen eta Jainkoaren aldekoa, eta ez norbera besteen kontura aberastea bilatzea. Oinarrizko aukera hori proposatzen zuen Joan Bataiatzaileak bataioaren unean, eta kristauok ere funtsezko jarrera hori onartu dugu gure bataioan. Horrekin, uko egin diogu gaizkiari, eta Kristo Jesusekin egin dugu bat, fedez.

Jesusen bataioa ez da urarekin egindako bataio hutsa, **Espiritu Santuarekin** egindako bataioa da. Jesusen piztueraren ondorio da dohain hori, eta azken garaietara garamatza. Jainkoak giza historia

epaitzeko garaia da. Salbazioa ekar dezan espero dugu guztiok, agindu bezala, baina bere maitasunaren suarekin ere araztuko du. Besteen beharrekiko sentikor egin eta gure ondasunak besteekin partekatzerara eraman gaitzala Eukaristiak.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jauna badatorrela jakiteak poztuta, egin dezagun otoitz senideok, gure askatasuna uste onez itxaro dugula

Erantzuna: **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



—Mundu honetako indarrekin liluratu gabe, Eliza bizi dadila beti Jainkoaren gidaritzapean. Egigun otoitz. R/.

—Jainkoaren laguntzaz eta denon ahaleginez, gure garaiak bakezko eta zorionezko egun izan daitezen. Egigun otoitz. R/.

—Jaunaren etorrerak denon bihotzak mugi ditzan, gaixoen osasuna, bakarrik daudenen laguntasuna eta sufritzen duten guztien atsedena bila ditzagun. Egigun otoitz. R/.

—Orain Jaunaren lehen etorrera eta gizon egitea zintzo ospatzen dugunok, azken egunean datorrenean ere pozik onar dezagun. Egigun otoitz. R/.

Entzun gure otoitzak, Jainko ahalguztidun horrek eta berri gaitzazu Zure Espiritu Santuaren suaz; egizu, Zure aginduei jarraituz gizaki guztiei hots egin diezaiegula Zure Semearen etorreraren berri pozgarria. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Abendualdiko 2. (*Meza-liburuan, 312. or*)

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jauna, zure errukiari deika gaude:
hartu dugun sakramentu honek
senda gaitzala gure ohitura txarretatik,
eta datozkigun jaietarako presta gaitzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bukaerako oharpena

Bidea prestatzea, Jaunaren poza gizaki guztiei helaraztea da: ez hitz ederrez, bizitzan zorientasuna eta esperantza islatuz baizik. Gozen.

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Jesu Kristo etorri dela sinesten duzue
eta berriro aintzaz etorriko dela itxaroten:**

Jainko ahalguztidun errukitsuak,

Haren etorreraren argiaz,

santu egin zaitzatela eta bere bedeinkapenez bete. R/. Amen.

Bizitza honetan gorde zaitzatela Jainkoak

fedean sendo, itxaropenean alai

eta maitasunean eginkor. R/. Amen.

**Orain gure Salbatzaile gizon eginaren etorreraz
pozten zaretenok**

gero, berriro aintzaz etorriko denean,

betiereko biziaren saria iritsi diezazuela. R/. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:

Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.